

## 2.- MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

### • Testuinguruan kokatzeko:

EAEko Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailak 2020ko otsailean aurkeztu zuen Etorkin Atzerritarrei Buruzko Inkesta-ren ( EABI) arabera<sup>1</sup>, urte horretako atzerritar kopurua 211.208koa zen; orduko EAEko biztanleen % 9,7. Emakume kopurua asko haziz joan da, etorkinen %55,1 izatera helduz aipatutako urtean.


Diru sarrerarik ez zuten etorkin kopurua %25ekoa zen eta baliabide iturri nagusi modura DSB-EPO sistema zutenak %7,6.

Jatorri afrikarra duten etorkinak dira orohar prekarietate eta zaurgarritasun egoera gehien pairatzen dutenak. Hauen ondoren, Hegoamerikako herrialde batzuetakoak daude. Era beran, hauexek dira, txinatarrak ez bezala, bertakoekin harremanak sortu eta inklusiorako nahia gehien adierazten dutenak.

Lanbidek aurkeztutako datuen arabera, 2020ko azaroan erregistratutako langabeen % 17,0 (22.467 pertsona), atzerritarrak dira. Urte arteko erlazioan, atzerritarren artean langabezia % 22,448 hazi da. Langabe atzerritarren % 32,3 Afrika iparraldekoak dira, % 26,1 Latinoamerikatik datoz, % 18,2 Europako Esparru Ekonomikotik, % 13,3 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 6,0, azkenik, Asiatik.<sup>2</sup>

2019ko datuen arabera, atzerritarren artean gehiago pairatu zuten langabezia emakumeek (%29,7) gizonezkoek baino (%26,9).<sup>3</sup>

arabera, gizonen jarduera-tasa handiagoa zela (% 77,8) eta emakumeen langabezia-tasa handiagoa zela (% 29,7).



Biztanleria osoa, espainiarra eta atzerritarra, lan-egoeraren arabera (%), 2019ko 4. hiruhilekoa



Jaiotzari dagokionez, Espainiar nazionalitatea zuten amen artean % 6,8 jaitsi ziren 2019.urtean . Aldiz, ama atzerritarren artean, % 3,5 igo zen. Amen % 27, 4 atzerritarrak ziren, guztira 4.223 erditze izan zirelarik. 2018. urtean berriz, % 25,24 izan ziren. Ama hauen jatorrizko herriak hauek ziren nagusiki eta erditze kopuru handienetik txikienerako ordenenean: Maroko, Kolonbia, Errumania, Nikaragua, Bolibia, Paraguai, Algeria

<sup>1</sup> Naiz. 2020-02-12. Bi errealitate ezberdin jasotzen ditu EAEko Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkestak. <https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20200212/bi-errealitate-ezberdin-jasotzen-ditu-eaeko-etorkin-atzerritarrei-buruzko-inkesta>

<sup>2</sup> Lanbide. Kabinete Teknikoa. 2020ko azaroa. [https://www.euskadi.eus/contenidos/estadistica/informe\\_paro\\_2020/eu\\_def/adjuntos/11-Azaroa/Informe\\_ParoE.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/estadistica/informe_paro_2020/eu_def/adjuntos/11-Azaroa/Informe_ParoE.pdf)

<sup>3</sup> Iñigo Mancisidor. etorkizuneko gizartea: ikuspegi gazte bat. <https://www.agirrecenter.eus/wp-content/uploads/2020/07/7.1%C3%B1igo-Gonz%C3%A1lez.pdf>

Honduras, Nigeria, Brazil, Venezuela eta Ekuador.

Ama hauen adinaz hitz eginez gero, atzerritarrek gazteago izan dituzte haurrak: %41,2ak 30 urte baino gutxiagorekin, ama atzerritarren batez besteko adina 30,7 izanik 2019. urtean.

• **Gure zerbitzu erabiltzaile-xedea eta honen ezaugarriak:**

Gure zerbitzu erabiltzailea haurren zaintzaz arduratzen den eta euskara ikasi, helduentzako eskoletan edo lan munduratzeko ikastaroetan parte hartu nahi duen heldu etorkina da.

Hauexek dira gure zerbitzu erabiltzaile- xedearen ezaugarri nagusiak: batez ere emakumea, ama, bere haurren zaintzaz arduratzen dena eta 25-40 urte tartekoa. Inklusio eta ahalduntze bidean dagoen emakumea da batez ere. Prestakuntza maila baxua eta diru sarrera eskasa duena.<sup>4</sup> Jatorriz, Afrika Iparraldekoa, Errumaniakoa edo Hego Amerikako hainbat herrialdeetakoak. Gaztelania hitz egiten eta hitz egiten ez dutenak izango dira, erdi eta erdi gutxi gorabehera.

Gure segmentazioa aldagai demografikoetan oinarritzen da: nazionalitatea, diru-sarrerak, generoa, adina, hezkuntza,... eta gure bezero segmentua **nitxoetan oinarritutako merkatua** izango da, hau da, merkatu segmentu bateko talde txikia, oso behar zehatz eta bereziak dituen eta modu egokian asetzen ez dena. Merkatu-nitxoak arreta gutxi edo batere ez duen bezero talde handi baten zatia da.

Haurren zaintza eskaintzen duen merkatu zabala dago, baina ez dira familia guztien beharretara egokitzen edo ez daude familia guztien eskura, arrazoi ezberdinak medio. Ikusi dugun bezala, asko dira EAEn dauden etorkinak, baina %25 zen 2018. urtean diru-sarrerarik ez zutenen ehunekoa. Horregatik, eskura ez dutenen talde zehatz batera zuzendu nahi dugu gure zerbitzua, esan bezala lan munduratzeko eta jendarteratzeko prozesuan dauden familien haurretan zentratuz,aldi berean, zaintza honek familia osoaren inklusioa sustatuko duelarik. Pertsona hauek ezin daitezke kanpo geratu.

Hasiera baten, Bizkaia bideratu dugu gure lana, Bizkaia baita Euskal Autonomi Erkidegoan atzerritar gehien jasotzen dituen herrialdea. 2018ko datuen arabera adibidez, Bizkaiak beste herrialde batzuetatik etorritakoen % 48,8 biltzen du eta atzerritar jatorriko biztanleria gehien igo den lurraldea da (%5,3) urte horretan.<sup>5</sup>

Hiri zein herrietan eskaintzen dugu zerbitzua. Hala ere, hirietan behar gehiago izango dela aurreikusten dugu, hauetan ematen baita atzerritar kopururik altuena. 2017an Bilbon atzerrian jaiotako 13.662 pertsona zeuden errolatuta, eta, Espainiako nazionalitatea duten eta atzerrian jaiotakoak diren biztanleen kasuan izan ezik, nazionalizatutako biztanleriatzat har daitezke (2016an baino 1.080 pertsona gehiago). Ama atzerritarren batez

---

<sup>4</sup> EUSTAT. 2020/06/29ko prentsa-oharra. Jaiotzen estatistika. 2019. Euskal AEn % 4,2 gutxitu ziren jaiotzak 2019an  
[https://eu.eustat.eus/elementos/ele0017400/ti\\_euskal-aen--42-gutxitu-ziren-jaiotzak-2019an/not0017428\\_e.html](https://eu.eustat.eus/elementos/ele0017400/ti_euskal-aen--42-gutxitu-ziren-jaiotzak-2019an/not0017428_e.html)

<sup>5</sup> El Mundo. Pais Vasco. 22-05-2018 La población extranjera crece el 9,4% y los afiliados a la Seguridad Social un 10,4%  
<https://www.elmundo.es/pais-vasco/2018/05/22/5b03dcb268e3e81448b45cd.html>

bestekoa 31,2 urtekoa izan zen. lazko azken hiru hilabeteetan, ama izan ziren emakumeen % 26,6 atzerritarrak ziren. Bizkaian, berriz, nazionalitate espainiarrik gabeko amak % 25,1 izan ziren.<sup>6</sup>

Etorकिन presentzia Bizkaian oso handia da eta euren inklusioan gure zerbitzua lagungarria dela deritzogu. Hala ere, aurrerantzean zerbitzua beste probintzietan ere eskaintzea da gure helburua.

---

<sup>6</sup> Diario Vasco. 20-05-2020. Radiografía de la natalidad vasca: menos nacimientos, más mujeres extranjeras y madres de entre 35 y 39 años.  
<https://www.diariovasco.com/gipuzkoa/radiografia-natalidad-vasca-20190520181500-nt.html>